



BBUP-EN EKIPO ELEKTROGENO MUGIKORRAREN MANTENTZE-LANAK EGITEKO ETA GARRAIATZEKO ETA EKIPO ELEKTROGENOAK ALOKATZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIAREN KARATULA. ESPEDIENTE-ZK.: 3179.

Erregulazio harmonizatuko kontratua	☐ BAI ☒ EZ
Espedientea izapidetzea	☒ Ohikoa, ☐ Urgentea, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Ireki sinplifikatua (SPKLren 159.1 art.) ☐ Ireki super sinplifikatua (SPKLren 159.6 art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA	
1.- Botere adjudikatzailea:	Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☐ Zuzendaritza Batzordea ☒ Presidentea ☐ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	José Javier Salvador González
4.- Kontratazio Zuzendariordetzaren harremanetarako datuak:	contratacion@consorciodeaguas.eus Administrazio/teknika arloko kontsultak: 944 873 100
5.- Kontratatzailearen profila:	www.consorciodeaguas.eus https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera/

B.- KONTRATUAREN XEDEA
1.- Kontratuaren xedea: BBUP-EN EKIPO ELEKTROGENO MUGIKORRAREN MANTENTZE-LANAK EGITEKO ETA GARRAIATZEKO ETA EKIPO ELEKTROGENOAK ALOKATZEKO ZERBITZUA 2.- Zer beharri erantzun behar zaien: Alokairu-erregimeneko ekipo elektrogenoen bidez (edo BBUPen 330 kVAko ekipo mugikorrarekin) BBUPen instalazio guztiak energia elektriko hornitzeko, bai programatuta bai larrialdi-kasuetan (sare elektrikoaren ohiko zerbitzua falta denean). 3.- Loteka banatzea: ☐ Bai ☒ Ez Loteka ez banatzearen justifikazioa: Zerbitzua unitarioa denez, eta gehieneko denbora jakin bat eskatzen denez, larrialdi-kasuetan, ekipo elektrogenoak alokatzeko zerbitzuan edo BBUPen ekipo elektrogeno mugikorra hornidura elektrikorik gabeko puntura garraiatzekoan, komeni da kontratu hau kontratista bat baino gehiagoren mende ez egotea.
4.- CPV: CPV kodea: 31121000-0 Deskribapena: Ekipo elektrogenoak
5.- Aldaeren edo alternatiben onargarritasuna: ☐ BAI ☒ EZ
6.- Izaera juridikoa ☒Administratiboa ☐ Pribatua



C.- KONTRATUAREN PREZIOA	
1.- Lizitazio-aurrekontua (BEZa gabe)	EHUN ETA LAUROGEITA HAMABOST MILA (195.000,00) EURO
2.- Kontratuaren balio zenbatetsia: 325.000,00 euro Loteak: ☐ BAI ☒ EZ	
3.- Prezioa zehazteko sistema: ☐ Oroharreko prezioa ☒ Prezio unitarioak	
4.- Urteko ordainketak eta aurrekontu-kontsignazioa: Kontratuaren aurrekontuko urteko ordainketak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa: 2026. urtea... ..202.01.169.31 partida 48.750,00 € 2027. urtea... ..202.01.169.31 partida 65.000,00 € 2028. urtea... ..202.01.169.31 partida 65.000,00 € 2029. urtea... ..202.01.169.31 partida 16.250,00 €	
5.- Prezioen berrikuspena: ☐ BAI ☒ EZ	
6.- Finantzaketa kanpoko funtsekin: ☐ BAI ☒ EZ	
7.- Ordaintzeko modua: Arrunta. Hileko ziurtagiria.	
8.- Konturako ordainketak: Ez	

D.- KONTRATUAREN EPEA
1.- Iraupen osoa HIRU (3) URTE
2.- Epe partzialak. ☐ BAI ☒ EZ
3.- Luzapena ☒ BAI ☐ EZ Bi (2) urteko luzapena gehienez ere, urtebetekoa bakoitza.
4.- Bermealdia: Ez da aplikagarria
5.- Kontratua exekutatzeko tokia: Ur Partzuergoaren instalazioak
6.- Lanak zatika jaso daitezke ☐ BAI ☒ EZ.

E.- BERMEAK	
☒ Behin betiko bermea: % 5	Zenbatekoa: Adjudikazioa
☐ Berme osagarria:	Zenbatekoa:

F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA
Urteko negozio-bolumena, amaitutako azken hiru urteetako negozio-bolumen handieneko urteari dagokionez, kontratuaren batez besteko urteko ordainketa halako bat izan beharko da gutxienez. (65.000,00 euro).



G.- GAITASUN TEKNIKO ETA PROFESIONALA

- 24 orduko laguntza-zerbitzua daukala ziurtatzeko konpromiso-gutuna.

☒ Enpresa sortu berrien gaitasun teknikoa:

Halako kasuetan, gaitasuna egiaztatzeke ez da esperientzia kontuan hartuko. Bai, gainerako eskakizunak.

ENPRESA-SAILKAPENA

ENPRESA-SAILKAPENA ☐ Bai, fakultatiboa ☒ Ez

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena.

2.- 2. gutun-azala: Balio-judizioen mende dauden irizpideei buruzko dokumentazioa.

3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzeko irizpideei buruzko dokumentazioa.

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

1. dokumentua. Zerbitzu hori eman nahi den erreserba-zerbitzuaren organigrama.

2. dokumentua. Programatutako lanetarako, ekipoak instalatzeko lizitatzailaren malgutasuna zehaztu behar da. 14:00ak baino lehen egin behar du, baina beste tarte batean egiteko konpromisoa hartzeko prest dagoen baloratuko da; adibidez, 08:00etarako edo 08:00etatik aurrera helmuga-lekuan instalatzeko. Ekipoa eta osagarriak kentzeko ohiko zerbitzua (edo programatutakoa) ematen den ordu-tartea ere baloratuko da. Kontratasteekin eguneko eta gaueko ordutegian harremanetan jartzeko bide zehatzak zehaztu behar dira, Tetra sare baten bidez komunikatzeko aukera barne.

3. dokumentua.

- BBUPek adjudikaziodunari gordailuan utziko dion ekiporako automantentze-plana entregatu behar da.
- Ekipoaren eta 1 m³-ko andel inudearen biltegiatze-lekuari (hobe leku itxi batean, aire zabalean baino) buruzko datuak eman behar dira, baita beroketa-alternadoreko erresistentziaren eta bateria-kargaren hornidura monofasiko osagarriaren korrante-hargunearen kokapenari buruzkoak ere.

4. dokumentua. Aseguruak. Ekipo elektrogenoak erabiltzen direnean sor daitezkeen kalteen aurkako aseguruaren estaldurak adierazi behar dira (uholdeak, suteak, zuhaitzak erortzea eta abar); baina ez, ezein kasutan, ekipoa gaizki erabili edo sabotatzearen ondoriozkoak.

5. dokumentua. Ordezkapena.

- Azaldu behar da erantzun-denborak minimora murrizteko zer abantaila eskaintzen diren, eskatutakoa bezalako ekiporik ez izatekotan.

6. dokumentua. Zerbitzu horretarako operazioen oinarritzko basean alokatzeko moduan dagoen parke propioaren zerrenda bat behar da, marka eta modelo-erreferentzia bilduko dituen. Adierazi behar da beste alokatzaile batzuekin akordiorik dagoen, ekipo propioen falta ordezkatzeko eta kontratuaren erantzun-denborak betetzeko.

7. dokumentua. Lizitatzailak potentzia handiko beste lantoki batzuetan (1.000 kVA baino gehiago) alokatzeko moduan duen parke propioaren zerrenda bat behar da, marka eta modelo-erreferentzia bilduko dituen.



BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

8. dokumentua. Zerbitzua emango den basetik ekipoak garraiatzeko zer ibilgailu-flota dagoen adierazi behar da. Bereziki, baso-pistetan ibil daitezkeen eta bide estuetan maniobrak egin ditzaketen ibilgailuen xehetasunak behar dira, eta horietatik zeintzuk diren 4x4.

9. dokumentua. Adierazi behar da gasolio-andel inudeek ontzi-aldaketak egiteko ponparik duten eta, gainera, ekipoaren tankean gasolioa automatikoki kargatzeko maniobrarik badagoen. Operadore baten esku-hartzerik gabe guztiz automatikoki funtzionatzen duen ere baloratuko da. Horri buruzko xehetasunak eskatzen dira.

Ekipo elektrogenoen edo andel inudeen gasolio-isurketei (andelen akatsek, mahuken hausturek, ontzi-aldaketetan izandako akatsek, lapurretek, uholdeek eta abarrek eragindakoak) aurre egiteko lizitatzailleak zer bitarteko propio edo hirugarrenekin itundutako zer baliabide dituen adierazi behar da.

10. dokumentua. SMS, Internet edo antzeko komunikazioen bidez, erregaiaren tankeari buruzko informazioa emateko eta gasolio-maila, gutxi gorabehera, % 25etik behera dagoela ohartarazteko ekipo elektrogenoetan integratuta dagoen sistemei buruzko informazioa; ea gasolio-mailen urkilaren kontrolik duen, andel inude batetik automatikoki kargatzen denean, eta ea aukera dagoen alarma gisa konfiguratzeko eta baterien kargaren beste kontrol bat eta haien egoerari buruzko informazioa izateko.

ESKAINTZATIK KANPO UZTEA ERAGITEN DUTEN EZ-BETETZE TEKNIKOAK

- PTPAn edo administrazio-kondizioetan eskatutako kondizioaren bat betetzen ez duen eskaintza bat aurkeztea.
- Eskatutako dokumentazio teknikoa ez aurkeztea edo behar bezala ez egiaztatzea.
- Larrialdietarako 24 orduko zerbitzurik ez eskaintzea.
- Eskatutako erantzun-denborak nola beteko diren behar bezala ez justifikatzea. Larrialdietan eskatutako denboran erantzuteko gaitasuna argi adierazi behar da modu arrazoituan.

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Proposamen ekonomikoa, lizitatzailleak edo haren ordezkariak sinatua, I. eranskin gisa bildutako ereduaren arabera idatzia ezinbestean, eskaintako prezioan zerga guztiak barne hartuta daudela, BEZa izan ezik.

Proposamen ekonomikoa honako hauekin osatuko da:

- a) **Prezioen zerrenda.**
PTPAren 2. eranskinean neurketak eta kontratuaren urteko aurrekontua daude. Lizitatzailleak taula hori bere prezioekin osatu behar du. Lizitatzaille bakoitzak osorik bete behar ditu excel orrialdeko E eta F zutabeak kontratuaren prezio bakoitzerako, bai eta kontratu-urte bakoitzeko guztizkoa ere. Kontratu-unitateek PTPAri egiten diote erreferentzia, eta taula horretan deskribatuta daude laburbildurik. Eskaintza ekonomikoa kalkulatzeko, urteko zenbateko horiek HIRUZ biderkatu beharko dira.
- b) **Kontratuaren aurrekontua**
Zerbitzuaren premien arabera gauzatuko da kontratua.

I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA

1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzaillearen profilean adierazitakoa



I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA

2.- Eskaintzak aurkezteko tokia (AKPAREN 13. klausulan ezarritakoa ez beste bat bada soilik):

3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztu behar dira ☒ BAI ☐ EZ

Eskaintza elektronikoak aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:

<https://contratacion.consortiodeaguas.eus/site/3?language=eu>

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA/ADITUEN BATZORDEA

Lehendakaria:

☒ Kontratazio-mahaia

Lehendakaria:

Ekaitz Mentxaka Corral.

Kideak:

Mikel Magunazelaia Pinaga.

Xabier Orue Moro.

Itziar Zarate Urrutia.

Gerardo Latorre Pedret.

Jose Manuel Pereda Renobales.

Idazkaria:

Gerardo Latorre Pedret.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Baloratu beharreko alderdi gisa lehiaketa adjudikatzeko oinarri izan behar duten irizpideak honako hauek dira:

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

Irizpide honetan 50 puntu emango dira gehienez.

Eskaintza ekonomikoak eskaintza bakoitzaren baja-ehunekokoarekiko (Bi) proportzioan baloratuko dira, honela:

Bmax	50 puntu
$(B_{max} + BBB) / 2$	48 puntu
BBB	47 puntu
$0,8 \times BBB$	46 puntu
$0,6 \times BBB$	44 puntu
Lizitazio-aurrekontua.....	0 puntu

Non:

- Bi: Eskaintzaren baja-ehunekoa; lizitazio-aurrekontuaren eta eskaintzaren zenbatekoaren arteko aldea zati lizitazio-aurrekontua eginda ateratzen den emaitza, ehunekotan adierazita.
- Bmax: Gehieneko bajaren ehunekoa, eskaintzarik ekonomikoenari dagokiona
- BBB: Batez besteko bajaren ehunekoa, lizitatzailerik bakoitzaren baja-ehunekoen batezbesteko aritmetikoaren emaitza

Onartutako gainerako eskaintzen puntuazioa aurretik zehaztutako puntu-banaketa linealki interpolatuta aterako da.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

Hori horrela, Bi baja bakoitzari esleitutako Pi puntuazioa honako hau da:

Baldin eta $0 < Bi \leq 0,6 \times BBB$

$$Pi = \frac{Bi}{0,6 \times BBB} \times 44$$

Baldin eta $0,6 \times BBB < Bi \leq 0,8 \times BBB$

$$Pi = 44 + \frac{(Bi - 0,6 \times BBB)}{0,2 \times BBB} \times 2$$

Baldin eta $0,8 \times BBB < Bi \leq BBB$

$$Pi = 46 + \frac{(Bi - 0,8 \times BBB)}{0,2 \times BBB}$$

Baldin eta $BBB < Bi \leq (BBB + Bmax) / 2$

$$Pi = 47 + \frac{(Bi - BBB)}{(Bmax - BBB)} \times 2$$

Baldin eta $(BBB + Bmax) / 2 < Bi \leq Bmax$

$$Pi = 48 + \frac{(2 \times Bi - BBB - Bmax)}{(Bmax - BBB)} \times 2$$

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

Memoria Teknikoa eta Exekutatzeko Metodologia 22 puntura arte

- Zerbitzu hori emango duen lantokian erreserba-taldearen antolakuntza egitea positiboki baloratuko da. Lantaldea, zerbitzua emateko haren egokitasuna eta, bereziki, ea mekanikorik duen matxura sinpleak konpontzeko. 4 puntu.
- Programatutako lanen kasuan, positiboki baloratuko da lizitatzailaren zerbitzuak, komeni denean, helmuga-lekuan, 08:00etarako edo 08:00etatik aurrerako ordutegiak ezartzeko aukera ematea, agirian zehaztutako gutxieneko 14:00etako mugaren ordeztu (ikus PTPAko 6.9 puntua). Ohiko zerbitzua (edo programatutakoa) emateko ordu-tartea ere baloratuko da. Kontratistarekin eguneko eta gaueko ordutegian harremanetan jartzeko modu edo bide zehatzak baloratuko dira, Tetra sare bat izateko aukera barne. 6 puntu.
- BBUPek adjudikaziodunari utziko dion ekiporako automantentze-plana. Eta ekiporekin eta 1 m³-ko andel inudearen biltegiratze-lekua, 6.7 puntuan adierazitakoa (PTPAko 25. unitatea) —hobe leku itxi batean, aire zabalean baino—, bai eta beroketa alternadoreko erresistentziaren eta bateria-kargaren hornidura monofasiko osagarriko korrante-hargunearen kokapena eta haren babes magnetotermikoarena ere. 4 puntu.
- Aseguruak. Ekipo elektrogenoak erabiltzen direnean sor daitezkeen kalteen aurkako aseguruen estaldurak baloratuko dira (uholdeak, suteak, zuhaitzak erortzea eta abar); baina ez, ezein kasutan, ekipoa gaizki erabili edo sabotatzearen ondoriozkoak. 4 puntu.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

- Ordezkapena. Kontratatutako zerbitzua emango duen lantokian ez beste batean eskuragarri duen ekipo bat behar izanez gero, hura baliabide propioa edo beste batena izan, eta ekipo horren berehalako premia izanez gero, zer abantaila eskaintzen ditu erantzun-denbora minimora murrizteko? 4 puntu.

Kontraturako jarritako bitarteko teknikoak: 20 puntu.

- Zerbitzu horretarako operazioen oinarritzko basean alokatzeko erabilgarri dagoen parke propioa. Horrek esan nahi du lantoki bat baino gehiago dituen enpresa batentzat erantzun-denborak betetzea ahalbidetzen dioten ekipo elektrogenoak dituzten lantokietako ekipo elektrogenoak baloratuko direla. Ekipo propioen falta ordezkatzeko eta kontratuaren erantzun-denborak betetzeko beste alokatzaile batzuekin egindako akordioak ere baloratuko dira. Norberaren makineria hobeto baloratuko da. Baita SMS, Internet edo antzeko komunikazioen bidez, erregaiaren tankeari buruzko informazioa emateko eta gasolio maila % 25etik behera dagoela ohartarazteko ekipo elektrogenoetan integratutako sistemarik badagoen ere; ea gasolio-mailen urkilaren kontrolik dagoen, andel inude batetik automatikoki kargatzen denean, eta ea aukera dagoen alarma gisa konfiguratzeko eta baterien kargaren beste kontrol bat eta haien egoerari buruzko informazioa izateko. 10 puntu.
- Lizitatzailerak eskuragarri izatea potentzia handiko beste lantoki batzuetan (1.000 kVA baino gehiago) alokatzeko parke propioa. 6 puntu.
- Ekipoak garraiatzeko ibilgailuak. Sarbide zaileko edo maniobragarritasun txikiko (4x4 trakzioa) lekuetara (baso-pistak, mendiak eta kamioi txikiak soilik ibil daitezkeen eremuak) ekipo elektrogenoak garraiatzeko eta haietan deskargatzeko erabilgarri dauden ibilgailuak baloratuko dira. 4 puntu.

Hobekuntzak: 5 puntu.

- Gasolio-andel inudeak, ontzi-aldaketak egiteko ponpa dutenak. Kostu gehigarririk gabe, beren andel inudetan ekipo elektrogenoaren aldenerako ontzi-aldaketa automatikoa egiteko ponpa bat instalatzeko aukera eskaintzen duten lizitatzailerak (andel inudearen zuzeneko xurgapenaren ordezkari; ekipoaren andela baliogabetuz). Operadore baten esku-hartzerik gabe guztiz automatikoki funtzionatzen duen ere baloratuko da. 5 puntu.

Ingurumen-irizpideak: 3 puntu.

- Ekipo elektrogenoen edo andel inudeen gasolio-isurketei (andelen akatsek, mahuken hausturek, ontzi-aldaketetan izandako akatsek, lapurretek, uholdeek eta abarrek eragindakoak) aurre egiteko lizitatzailerak bakoitzak zer bitarteko propio edo hirugarrenekin itundutako zer baliabide duen baloratuko da. 3 puntu.

2.- Berdinketa hausteko irizpideak:

Eskaintza baten baino gehiagoren artean berdinketa jazoz gero, behean adierazitako irizpide sozialak aplikatuko dira berdinketa ebatzeko, adierazitako hurrenkeran, eskaintzak aurkezteko epea amaitzean lizitatzailerak duen egoera kontuan izanik:

- a) Enpresetako plantilletatik desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiena duena; berdinketa gertatuz gero, plantillan langile desgaitu gehien duena edo plantillan inklusio-neurrien bidez langile gehien duena.
- b) Plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duen enpresa.
- c) Plantillan emakume enplegatuen ehuneko handiena duen enpresa.
- d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa ebatzi ez bada.

3.- Eskaintza anormalki txikitzat jotzeko irizpideak:

Eskaintza anormalki txikitzat joko da honako egoera hauetako batean badago:

- Baldin eta, lizitatzailerak bakarrik egonik, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua baino portzentajezko 25 unitate txikiagoa bada.
- Bi lizitatzailerak egonik, beste eskaintza baino portzentajezko 20 unitate txikiagoa dena.
- Hiru lizitatzailerak egonik, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Nolanahi ere, zenbatekorik handieneko eskaintza ez da kontuan hartuko batezbestekoa zenbatzeko, baldin eta batezbesteko bakarrik baino portzentajezko 10 unitate handiagoa bada, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Dena den, neurrigabetzat joko da portzentajezko 25 unitatetik gorako baja.
- Lau lizitatzailerak edo gehiago badaude, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Hala ere, haietako eskaintza batzuk batezbestekoa baino portzentajezko 10 unitate baino handiagoak badira, egoera horretan ez



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

dauden eskaintzekin bakarrik egingo da batezbestekoa, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Nolanahi ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria zenbatekorik txikieneko hiru eskaintzen gainean kalkulatu da.

Talde bereko enpresek eskaintzak aurkezten badituzte, eskaintzarik txikiena baino ez da kontuan hartuko anormaltasun-presuntzioan dauden eskaintzak identifikatzeko araubidea aplikatzeko, alde batera utzita eskaintza bakarrik edo taldetik kanpoko enpresa batekin edo batzuekin batera, aldi baterako elkarturik, aurkeztu duten.

4.- Lizitatzailari, hautespen-prozesuan jarraitzeko, eskatutako gutxieneko puntuazio-atalasea:
Ez dagokio.

L.- KONTRATUA EXEKUTATZEKO KONDIZIO BEREZIAK

PTPAn zehaztutakoak.

M.- ZEHAPEN ZEHATZAK

PTPAn adierazitako kasuak eta ekintzak.

Larrialdi-zerbitzua berandu emateagatik

Larrialdi-zerbitzurako erantzun-denbora PTPAn ezarritakoa baino luzeagoa da (3. apartatua). Lehen aldian, honela zehatuko da: atzerapeneko ordu edo ordu-zati bakoitzeko ekipoaren bi eguneko alokairua; ondorengo aldietan, bost egunekoa. Kontratuaren zenbateko osoaren % 10eraino gehienez. Zehapena eskatutako ekipoaren alokairu-unitateari egokituko zaio.

Ohiko zerbitzuan edo larrialdian, ekipoa, andel inudea edo ontziz aldatzeko ponpa matxuratuz gero, lehen aldiz, ordu edo ordu-zati bakoitzeko (hura gelditu zela antzeman zenetik konpondu zen arte) egun bateko alokairu-zehapena ezarriko da, eta ondorengo aldietan, bi egunekoa. Kontratuaren zenbateko osoaren % 10eraino gehienez. Ekipoak ondo funtzionatzen ez duela ulertuko da hornidura elektrikoa iraunkorra ez bada, hau da, etenik gabekoa ez bada (ekipoaren edo babes elektrikoaren 1 tiro/ordu).

Gasolioa isurtzeagatik

☐ Gasolioa isurtzeagatik kontratua deuseztatu ahal izango da, eta kontratuaren zenbatekoaren % 0,5eko zehapena izango du, BBUPi eragindako gastuak gehituta (ukitutako eremua garbitzeagatik eta deskutsatzeagatik).

Ekipoen ezaugarri teknikoak ez betetzeagatik

☐ Alokaturako ekipoek ez badituzte betetzen PTPAren aginduak, kostu gehigarririk gabe ordezkatzeari eskatuko da, eta, gainera, kontratuaren % 0,1eko zehapena aplikatuko da lehen aldian, eta % 1ekoa ondorengoetan, kontratuaren % 10eraino gehienez ere.

Zehapenen ondorioak

☐ Zehapenek kontratuaren zenbatekoaren urteroko baten % 5 gainditzen badute, horrek kontratua deuseztatzea ekarri ahal izango du, BBUPen irizpidearen arabera.

N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Arrisku profesionalengatik erantzukizuneko aseguruia dagoelako egiaztagiria.

Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

Ez dagokio

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

Bai

☒ Hasieran aurkezteko betebeharra

P.- SUBROGAZIOA



Ez

Q.- ERREKURTSO BEREZIA

☒ BAI

☐ EZ

BETEBEHARRAK KONTRATUA EXEKUTATU BITARTEAN

- BBUPeko Prebentzio Departamentuaren eskakizunak betetzea.
- Ingurumen-errekerimenduak betetzea
- Lanak zerbitzuaren beharren arabera izango dira. Horregatik, edozein unetan eten edo atzeratu beharko dira, BBUPek hala eskatuz gero (modu arbitrarioan). Hori ez betetzea kontratua deuseztatzeko arrazoia izango da.
- Adjudikaziodunaren akats edo zabarkeria baten ondoriozko matxura larri batek edo istripu larri batek kontratua deuseztatzea ekar lezake.
- Kontratistak 4x4 ibilgailuak eduki beharko ditu kontratu honi atxikita.
- Larrialdietarako 24 orduko zerbitzua eskaini beharko du.
- Eskatutako erantzun-denborak bermatu beharko ditu kontratistak.

KONTRATISTAREN ORDEZKARIA

Adjudikaziodunak kontratua garatzeaz arduratuko den teknikari bat izendatuko du, eta hura izango da kontratuaren arduradunaren solaskidea.

ADR

ADR akordioko erantzukizunak edo BASEaren eta BBUPen instalazioen arteko kontratu honetarako ekipoen eta andel inudeen garraiotik (zamalanak barne) erator daitezkeen beste erantzukizun batzuk ere adjudikaziodunarenak izango dira, eta inola ere ez BBUPenak.